



2007ko martxoa



**BERRI ZALEA**

Euskal Etxea Barcelona



## MARTXOKO AGENDA KULTURALA

Bartzelonako Korrikarako prestatu ditugun ekimenez gain, martxoan ekitaldi hauek ere egingo ditugu txokoan:

### Bazkideen batzarra eta Afari soziala

Datorren martxoaren 9an, ostiralarekin, Bartzelonako Euskal Etxeko bazkideen ohiko batzar orokorra egingo dugu Euskal Etxean, 19:30ean lehen deialdian, eta 20:00etan bigarreanean. Hona hemen eguneko gai-ordena:

1. 2006ko kudeaketa eta ekonomia balantzea onartzea.
2. 2007ko aurrekontuak aurkeztu eta onartzea.
3. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketaren balantzea egin eta Euskal Etxearen egungo egoera aztertzea.
4. Egoitzaren kokalekua: 2008ko bukaeran alogera kontratua amaitzen denez, horren gaineko eztabaida egitea eta irtenbideak proposatzea.
5. Norberak leharkeena.

Elkartearen erabaki gune gorena den Batzarrean parte hartzeko deia egiten dizuegu, eta azaldu ezin baduzue, gogorarazten dizuegu eskura daukazuela zuen botoa beste bazkide batengan delegatzeko inprimakiak.

Batzarra amaitutakoan egingo da afari soziala.

Afaria 21.00etan hasiko da.

Afariaren prezioa 10 €-koa da bazkideentzat eta 14 €-koa bazkide ez direnentzat. Izena aldeaz aurretik eman behar duzue, Idazkaritzan edo 933.102.200 telefono zenbakian hilaren 7a, asteazkena, baino lehen.

### Buletin elektronikoa eta datuen eguneratzea

Aurreko aletan azaldu genizuen, BERRIZALEA buletin formatu elektronikoa ematen dugu, berriaz hala ez egiteko eskatu diguten bazkideen kasuan salbu.

Era berean, harremanetan gaude gure bazkideekin, Elkarteko datu basea eguneratzeko asmoz.

Gure deirik jaso ez baduzu, edo otsaileko buletin heldu ez bazaizu, jar zaitez, mesedez, gurekin harremanetan idazkaritzatik bulego ordu-tegian pasata (11.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00), 933 10 22 00 telefono zenbakira deituta, edo bulegobcn@euskaletxeak.org helbidera mezu elektronikoa bidalita.

. Martxoaren 2an, ostiralarekin 21.00etan. EPMA antzerki taldeak “Sentits-Sentidos” antzezlanaren aurkez-tuko du. Lau emakumeren istorioa da. Zentzumenetan barrena doan bidaia. Sufrimendutik itxaropenerako ibilbidea.

. Martxoaren 3an, larunbaterekin, 21.30ean Lumagorri Festa.

. Martxoaren 7an, asteazkenarekin, 19.30ean. Hitzaldia: “Euskal matriarkatua: mitoa ala egia”. Hitzaldi honekin “Emakume langilearen nazioarteko eguna” ospatu nahi dugu, egun bat lehenago.

. Martxoaren 9an, ostiralarekin, 21.00etan Afari soziala.

. Martxoaren 29an, ostegunarekin, 19.30ean. Hitzaldia: “Udalbiltza”. Mi-ren Odriozola eta Peio Gasconekin.

. Martxoaren 30ean, ostiralarekin, 22.30ean. Sei Urte taldearen emanaldi akustikoa. “Gaztea Saria” sarie-tarako hautagai dira “Aurrerantzean” kantarekin. [www.seiurte.com](http://www.seiurte.com)

Beste behin, Sagardo Eguna arrakastatsua izan zen oso.

2007ko matxoa

## BERRI ZALEA

Euskal Etxea Barcelona

Per Qualsevol suggeriment a aquest butlleti podeu escriure a : barcelona@euskaletxeak.org  
Placeta Montcada 1- 3 Entrada per Arc de Sant Vicenç  
Tlf:93 310 22 00 Fax 93 268 40 80  
barcelona@euskaletxeak.org

<http://www.euskaletxeak.org>  
<http://blog.euskaletxeak.org>



### “Bartzelonako Euskal Etxea” XII. Mus Txapelketa

Euskal Etxeko bazkide Andres Fernandez eta Iñaki Insausti izan ziren XII. Mus txapelketako irabazleak. Bigarren postuan Gabriel Huarte-Mendikoa eta Marcos Narbarte gertatu ziren. Sariak martxoaren 9ko afari sozialean jasoko dituzte.

### Sagardo Eguna

Beste behin, Sagardo Eguna arrakastatsua izan zen oso. Bazkarirako 70 lagunek eman zuten izena, eta arratsaldeko trikipoteoan askoz ere jende gehiago bildu zen trikitiak sortutako giro paregabearen soinura. Festa txokoa lepo zela amaitu zen. Milesker bertan izan zineten guztioi, datorrenetan ere etorriko zaretela espero dugu.

## Korrika 2007

Aurreko Berrizalean aurreratu genizuenez, egitarau benetan zabala prestatu dugu “Korrika 15” honetarako. Hauek dira antolatutako ditugun ekimenak\*:

. Martxoaren 14an, asteazkenarekin, 19.00etan. Joseba Tapiaren kontzertua Drassanes-eko Hizkuntza Eskola Ofizialaren areto nagusian. [www.josebatapia.com](http://www.josebatapia.com)

. Martxoaren 16an, ostiralarekin, 22.30ean Euskal Etxean. Anje Duhalde eta Miquel Pujadóren emandaldi akustikoa.

. Martxoaren 20an, asteartarekin, 19.30ean Euskal Etxean. Mahaingurua: “Hizkuntzaren alde: erakundearen ekimena eta gizarte aldarrikapena”. CAL, EHE, CPNL eta Behatokia-ko ordezkariak izango dira. Gidari Monica Sabata arituko da.

. Martxoaren 22an, ostegunarekin, Euskal Etxean. Euskal Kulturaren inguruko lehiaketa Bartzelonan euskara ematen duten zentroetako ikasleen artean

(EE, UAB, UB, EOIBD).

. Martxoaren 23an, ostiralarekin, Euskal Etxean. Hitzaldia: “Euskalkien egungo egoera”, Koldo Zuazok emana.

. Martxoaren 24an, larunbatarekin, Korrika eguna. Korrika txikia eta gosaria Graciako Rius i Taulet plazan. Korrikursa Garciatik Santsera. Sants plazan: hasiera ekitaldia, castellers-ak, bastonets, fanfarria, herri bazkaria, trikipoteoa, Ene Bada taldearen kontzertua eta amaiera festa Can Vies-en.

Labur esanda, hitzaldiak, lehiaketak, kontzertuak eta Korrika eguna. Bartzelonan zabilzaten euskaldun guztiok parte hartzea espero dugu. Egitarau hau euskararen alde musutruk lanean ari diren pertsona askori esker egin ahal izan da. Parte hartu nahi baduzue, eta talde antolatzailean lanean aritu, gureganat jotzea baino ez duzue. Zuen zain gauzkaue!

### “Ostiralero – cada divendres”

Otsailean Joseba Irazoki, Noizean Behin eta “Airez” abesbatzaren emanaldiak izan genituen. Josebak gitarra jo eta abestiak egiteko abilezia gain, bere komunikatzeko gaitasuna azaldu zuen. Mungiko Noizean Behin taldeak bere rock latza modu akustikoan bikain ematen asmatu zuen.

Aurrerantzean ere, Euskal Herriko kultur proposamenak ekartzeko asmo sendoa dugu, eta, horretarako, zuen laguntza eta parte hartzea izango ditugunaren zalantza izpirik ez dugu.

\*Litekeena da ekitaldi batzuen ordua, tokia edo edukia aldatzea. Horregatik, webgune hauetan jarraitzea gomendatzen dizuegu: [www.euskaletxeak.org](http://www.euskaletxeak.org) eta

[blog.euskaletxeak.org](http://blog.euskaletxeak.org)